**AGINDUA, GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNUKO SAILBURUARENA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO PUBLIKOKO GAITUTAKO FUNTZIONARIOEN ERREGISTROAREN AGINDU-PROIEKTUAREN TESTUA ALDEZ AURRETIK ONARTZEN DUENA**

Xedapen Orokorrak Prestatzeko Prozedurari buruzko abenduaren 22ko 8/2003 Legeak II. kapituluan xedatzen duenez, arloan arloko eskumena duen saileko sailburuaren agindu bidez emango zaio hasiera xedapen orokorrak prestatzeko prozedurari.

Lege horren 7.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, xedapen orokorren proiektuak idatzitakoan, prozedura hasteko agindua eman duen organoak aldez aurreko onarpena eman beharko die, dagozkion negoziazio-, entzunaldi- eta kontsulta-izapideak egin aurretik.

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren 2021eko maiatzaren 12ko Aginduaren bidez, agindua eman zen hasiera emateko Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoko Gaitutako Funtzionarioen Erregistroaren Agindu-proiektua egiteko prozedurari.

Proiektuaren testua idatzi ondoren, hasierako agindu horretan ezarritako helburuarekin bat etorriz, aldez aurretik onartu behar da, entzunaldi- eta kontsulta-izapideak egin aurretik.

Hori guztia ikusirik, honako hau

**EBAZTEN DUT:**

**Lehenengoa.-** Aldez aurretik onartzea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoko Gaitutako Funtzionarioen Erregistroaren Agindu-proiektuaren testua.

**ORDEN DE LA CONSEJERA DE GOBERNANZA PÚBLICA Y AUTOGOBIERNO, POR LA QUE SE APRUEBA CON CARÁCTER PREVIO EL TEXTO DEL PROYECTO DE ORDEN DEL REGISTRO DE PERSONAL FUNCIONARIO HABILITADO DE LA ADMINISTRACIÓN PÚBLICA DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DE EUSKADI**

La Ley 8/2003, de 22 de diciembre, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General dispone, en su Capítulo II, que el procedimiento de elaboración de las disposiciones de carácter general se iniciará por Orden del Consejero o Consejera titular del Departamento competente por razón de la materia sobre la que versen.

Conforme a lo establecido en el artículo 7.1 de dicha ley, una vez redactados los proyectos de disposiciones de carácter general, deberán contar con la aprobación previa del órgano que haya dictado la orden de inicio, antes de evacuar los trámites de negociación, audiencia y consulta que procedan.

Mediante Orden del Consejero de Gobernanza Pública y Autogobierno, de 12 de mayo de 2021, se ordenó el inicio del procedimiento de elaboración del Proyecto de Orden del Registro de Personal Funcionario Habilitado en la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

Una vez redactado el texto del proyecto, de acuerdo con la finalidad establecida en la citada Orden de inicio, procede su aprobación previa, anterior a los trámites de audiencia y consulta pertinentes.

Por cuanto antecede,

**RESUELVO:**

**Primero**.- Aprobar, con carácter previo, el texto del proyecto de Proyecto de Orden del Registro de Personal Funcionario Habilitado en la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

**Segundo**.- Hacer pública la presente Orden de aprobación previa junto con el texto del



Este documento es una representación del original disponible a través del **localizador** y la **sede electrónica** indicados al pie de página.
Dokumentu hau jatorrizkoaren irudikapen bat da, orri-oinean adierazitako **lokalizatzailearen** eta **egoitza elektronikoaren** bidez eskuragarri dagoena.

**LOKALIZATZAILEA / LOCALIZADOR:** J0D0Z-T2RTY-DSC1
**EGOITZA ELEKTRONIKOA / SEDE ELECTRÓNICA:** https://euskadi.eus/lokalizatzailea / https://euskadi.eus/localizador
**SINATZAILE / FIRMANTE:** OLATZ GARAMENDI LANDA | 2021/05/12 11:42:29

**Bigarrena**.- Legesarea izeneko lankidetza-gunean aurretiko onarpen-agindu honen berri ematea, arau-proiektuaren testuarekin batera.

**Hirugarrena.-** Agintzea xedapen hori prestatzeko prozedurari amaiera emateko beharrezkoak diren instrukzio egintzekin jarraitzeko.

proyecto normativo en el espacio Colaborativo Jurídico en Red Legesarea.

**Tercero.-** Ordenar la continuación de los actos de instrucción necesarios para la finalización del procedimiento de elaboración de la citada disposición.

**GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNUKO SAILBURUA**
**LA CONSEJERA DE GOBERNANZA PÚBLICA Y AUTOGOBIERNO**

Olatz Garamendi Landa
*Elektronikoki sinatuta/Fdo. electrónicamente*